

ETSIPENAREN

UHARTETIK

Ermuko Udal Liburutegia - Biblioteca Municipal de Ermua

ETSIPENAREN UHARTETIK

Urrezko hamabi izar dir-dir
ortzimuga urdinaren erdian,
harrokeriaz erruz horditurik
hordagoka mahai biribilean...

Itsasotik datoz garrasi garratzak,
etsipen-uhartetik izu-uluak...
Izarren ustezko urre-eremuan
orok dira jarraian hobiratuak!

Gezurrezko hamabi izar diz-diz
itsaso artegaren gainean,
malkoen zipriztinak ekidin nahian
lotsagabeki jira-bira eroan...

Olatu oldarkor batek dakar
galduriko lotsaren lorratza,
hondartzan utzi du baldar
aingerutxo baten hilotza!

Gezurrezko hamabi izar kir-kir
hodei beltzezko hesiaren atzean,
kilkerrarena eginez antzerkian,
orain ezkutuan, orain agerian...

Askatasuna nahi zenuen erdietsi,
hegan ikasi baino lehen ordea,
bi hegoak zizkizuten ebatsi...

Agur t' erdi, *Aylan Kurdi* maitea!

Gezurrezko izarrak fede gaiztoz
buru-belarri ahaleaginean,
oroitzapen oro ehortzi asmoz
ahantzuraren artxipelagoan...

Hilerrri erraldoian eraldatua,
itsasoak soilik daki egia:
agiriz umezurtz direnen agonia,
isileko tragediaren neurria!

Gezurrezko hamabi izar kikil
bihotz herdoilduen erresuman,
Schengen-eko espiritua erail
eta aihergatasuna erein guran...

Herrien arteko elkarkidetasuna
oinarrizko egitasmoa sorreran...
Egun giza-eskubideak auzitan
patrika asetuen ordainetan!

Etorkizun ilunenetik ihesian
hamaika etorkin askatasunaren egarri...
Isiltasun-harresiaren aurrean
ametsaren hondoratzea dute igarri!

Gezurrezko hamabi izar dantzan
sosen kriskitinaren soinuan,
aldizka malko herdoilduak
apainki zintzilikatuz erakusleihoan!

Alegiazko argi-distiraren gibelean
ustelkeriaren itzala liteke antzeman,
kiratsa dario laguntza ezari,
hetsitako atea inoiz ez irekitzeari...

Krisi ekonomikoaren mamua,
horra kontzientziak lotaratzeko
nahiz ustelkeria estaltzeko
sehaska-kanta ezin hobea!

Gezurrezko izarren mahai-oihala,
egun ageri da odol-orbanetz betea...
Ezinbestekoa da iturburura itzultzea,
jatorrizko espiritua berrestea!

Amaitu bitez behingoz alanbre-hesiak,
amaitu bitez olatuen gillotinak,
babesik ezaren politika-lubakiak
eta haurrentzako sehaska-abestiak!

Entzun etsipen-uhartetik datorren aldarria

- "Aylan Kurdi" dio, gero eta ozenkiago -,

geraezinezkoa baita dagoeneko

jaio berri den ernegazioaren tsunamia!

Kontzientziak dizkiguzu irauli

zure azken hatsaz, *Aylan Kurdi*...

Zure izenez bataiatutako tsunamiak

garbi bitza bihotz herdoildu guztiak!

UHARRI